

Itzuli dira etxera Saharako haurrak

Oporrak bakean egitasmoarekin sei haur saharauiar izan dira herrian

Bi hilabete kanpamenduetatik at igaro ondoren, Saharako haurrak bueltatu dira etxera. Sahara Herriaren Lagunen Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalararen eta Euskadiko Saharauien Delegazioaren laguntzarekin 7 eta 12 urte bitarteko 400 haur etorri dira Euskal Herrira oporrak igarotzera eta sei Lasarte-Oriara.

Elkarteko kideek oporraldi hauen garrantzia azpimarratu nahi dute: "haur hauek errefuxiatuen kanpamenduetan jaio eta hazi dira, eta euren familiekin batera, erbesteratze luze bat jasaten ari dira, gainera kanpamenduetako egoera gero eta larriagoa da. Uda honetan itzalean 52 gradutako tenperaturak jasan dituzte, hau dela eta egunero 2 edo 3 haur edo zahar hil dira. Beharrezko da haur hauei udan aukera bat eskaintzea eta beharrezkoak ere harrera familiak".

Osasun azterketak

Egonaldiak irauten duen bitartean, haur hauei azterketa medikuak egiten zaizkie: ikusmena eta hortz-aginak begiratu, behar dituzten txer-toak jarri...

Sara eta Txema, elkarteko kideak, Brahim izan dute etxean eta bere amarekin udan zehar hainbat alditan



Primeran pasa dute Saharako haurrek udako bi hilabete hauetan. Abuztuaren 23an bueltatu ziren kanpamenduetara.

hitz egin dute: "mila aldiz eskertu digu hemendik egiten dugun lana eta euren haurrei eskaintzen diegun aukera, jakin badakite harrera familiek egiten duten esfortzua".

Laguntza gehiago

Oporrak bakean egitasmoak gero eta laguntza gehiago jasotzen duen arren, elkarte-kideek Lasarte-Oriako zerbitzu sozialetako laguntza

beharrezko litzatekeela diote, beste herrietan egiten duten moduan. "Gu arduratzen gara guztiaz: baimenak eta harrera familiak lortu, deiak egin, faxak bidali, fotokopiak...

Elkartek ez du bitarteko nahikorik dena egiteko, gainera gure aisialdian egiten dugu. Horregatik, gizarte sozialetako laguntza beharrezkoa da".



Joko Olinpikoak bertatik nola bizi izan dituen argitu digu Maialen Chourraut-ek /4

KIROLA ■ 6

Ostadarren Areto-futboleko XXVI. txapelketarako izen emate epea ireki da



Zero Sette akordeoi orkestrak Bavariara egin zuen bidaia uztailen /3

mihia jan dizu katuak?

aek

milaka hiztun berri urtero

IKASI EUSKARA | www.aek.org | 902 362 294

muntteri  **euskaltegia** 

Matrikulatzeko epea irailaren 1etik irekia

- Euskalduntzeko maila guztiak
- EGA
- Hizkuntza perfilak
- Euskara agiriak

Geltoki kalea 17, behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863
lasarte@aecknet.net

Factoring azoka laster Lasarte-Orian, merke erosteko aukera bikaina

TXINTXARRI

Irailaren 21ean, igandea, Lasarte-Oriako askotariko produktuak ohikoa baino merkeago erosteko aukera izango dute. Factoring azoka antolatu dute Merkatarien Mahaletik merkatariei laguntzeko baina bide batez herritarrei dendak hobeto ezagutu eta merke erosteko aukera emateko. Merkatariek biltegian duten stock-a ateratzeko aukera bikaina da eta herritarrek komertzioak eta hauen produktuak ezagutu ahal izango dituzte. Michelin gunean izango da stock-aren azoka eta egun osoan zehar egongo da irekita.

Hilaren 21erako Lasarte-Oriako merkataritza mahaia azoka antolatu du merkatariek duten stock-ari irtenbide bat emateko asmoarekin. Herriko merkatariez gain inguruko herrikoek ere parte hartu dezakete bertan, horrela eskaintza interesgarriagoa eta zabalagoa izango da gerturazten den guztiarentzat, gainera biltegia husteko aukera inguruko merkatariek ere izango dute. Biltegiok gauzak aterako dituzte jendeak ohikoa dena baino merkeago eros dezan eta bide batez jende artean ezagutzera emateko aprobetxatuko dute azoka hau herriko eta inguruko merkatariek. Herriko denda txiki batzuk ezazagunak dira askorentzat eta zer

esanik ez ondoko herrietakoak, horregatik Factoring azokan arropa merke erostez gain komertzio txikiak ezagutu ahal izango ditu gerturazten den orok.

Factoring izena jarri diote stock-aren azoka honi eta saldu ez diren produktuei irtenbidea emateko helburuarekin ospatuko da Merkataritza Mahaiairen eskutik. Merkataritzaren Mahaia Lasarte-Oriako Udalak (Merkataritzako Departamentua), ATERPEA Merkataritza-Elkarteak eta Buruntzaldeko Merkataritza Laguntza Teknikoa emateko Kabinetek (MLTK) osatu zuten urte hasieran sektorea jardura desberdinen bitartez dinamizatzeko. Egiten dituzten bilera horietako batean sortu zen azoka honen ideia eta hilaren 21ean ospatuko da.

Prezio merkea izango dute bertan salgai jarriko diren produktuak, normalean dendetan ikusten ez ditugun salneurriak izango dira. Merke eta kalitatez erosteko aukera bikaina da. Michelinen izango da goizeko 10:00etan hasi eta gaueko 20:00ak arte, egun osoan egongo da irekita atsendenik hartu gabe. Goizean trikitilariak ibiliko dira azoka giroten eta egun osoan zehar puzgarriak egongo dira umeek ere eguna aspertu gabe aprobetxatu dezaten. Sarrera euro batekoa izango da eta parte hartu nahi duten



Nahiz eta gehienak arropa dendak izango diren produktu aukera zabalagoa da.

merkatariek Aterpea-kokideak badira 50euro ordaindu beharok dituzte eta kide ez direnek 70 euro.

Sarrera erosten dutenen artean Zumaiako talasoterrariako sarrera bikoitzak zozketatuko dira

Parte hartzaileak

Askotariko dendak egongo dira adibidez arropa dendak, lurrindegiak, mertzeriak, etxe-

tresna elektrikoak, zapata dendak, umeentzako arropa, liburudendak, dekorazioa, kosmetika. Gehienak herrikoak dira, Maiame, Olmy, Maierik, Txalo Pintxalo, Bazar Abreu, Aritzta mertzeria, Ekain liburudenda, Bideo Lagunak, Bitxi-Lore, Inquietud, Arkume umeentzako arropa, Kalkos, Iratxo, Alda eta Donna Boutique baina kanpokoak ere izango ditugu Hernanitik,

esate baterako, Axeri arropa denda eta Inspirasia dekorazioa denda etorriko dira.

Izena emateko

Parte hartu nahi izanez gero Merkataritza Laguntza Teknikorako Kabineteko teknikaria den Gorka Goikoetxearekin harremanetan jarri besterik ez dago 943 456 333 telefonoan edo gorka@aega.es helbide elektronikoa.

Zentro Zibikoko ikastaroetan izena emateko epea ireki da

Izen emateko Emakumearen Zentro Zibikoan egin behar dira irailaren 12a bitarte. Ikastaroak irailaren 15ean hasiko dira abenduaren 19a arte eta eskaintza zabalagoa da ordutegi malguarekin.

Zentro Zibikoko jardueretan parte hartu nahi izanez gero irailaren 12a arte egin daiteke Zentro Zibikoan, Aralar plazako 5.ean. Ekintza desberdinak ordutegi zabalarekin prestatu dituzte oporrak bukatu eta hurrengo lau hilabete hauetarako. Batzuk lasaigoak eta besteak gorputzari pixka bat eragitekoak. Jarduera batzuk doainekoak izango dira mantentzeko gim-

nasia, frantsesa, orratz-lanak, ebaketa eta jantzizigntza, bideoforuma, jantzi konponketak eta patrioiak, irakurketaren txokoa eta ihauterietako konpartsa, baina, hala ere parte hartu nahi izanez gero izena emateko beharrezkoa da tokia gordetzeko.

Kuota desberdinak

Ordaindu beharreko jarduerak batuka, antzerkia, kantua, automakillajea, eskulanak, defentsa pertsonala, yoga, pilates bolioak, tai-chi, clown eta emozioak, sabel dantza edo sevillanak dira eta hauek ari nahi izanez gero kuota bat ordaindu beharko da.



Aurreko urteetako automakillaje ikastaroko irudia.

Ordaindu beharreko kuota ikastaro kopuruaren arabera da. Ikastaro bat edo gehiago egin nahi izanez gero, 35,50 euro ordaindu behar dira jardueratan parte hartzeko, 46,50 euro hirutan izena emateko eta 49,50 euro lau ikastarotan izena emateko.

Emakumearen Zentro Zibikoan bertan egin behar da inskripzioa, goizeko 9:30etatik 13:30ak arte eta arratsaldeko 15:00etatik 20:00ak arte. Eta esan bezala epea irailaren 12a arte dago irekita.

Eraman beharreko agiriak

Izena emateko NANaren fotokopia, KUTXAKO 20 zenbakia eta eskabide orria behar bezala beteta dira aurkeztu behar diren agiri bakarrak. •

Zero Sette orkestrak arrakasta handia izan du Alemanian

Kontzertuaz gain, turismoa egiteko astia ere izan dute orkestrako kideek

Nerea EIZAGIRRE

Duela bi urte 1. Straubinger Akordeonorchester 1973 e.V.a Lasarte-Oriako III. Akordeoi jaialdiako orkestra gonbidatu izan zen. Senidetze kultural honi jarraipena eman eta orkestra alemaniarraren 35. urteurrena ospatzeko, Lasarte-Oriako Zero Sette orkestrak Bavariako Straubinger herria egin zuen uztailean.

Baina ez zen guztia lana izan, inguruko herriak, hala nola, Munich edo Friburgo bisitatzeko aukera izan baitzuen orkestrak. Bidaia berri izateko, Iñigo Zatarain orkestra kidearekin hitz egin dugu.

Straubingerren urtemuga

Bidaian ordu asko egin ostean, 22 ordu gutxi gora behera, 18 akordeolari eta 8 bazkideak Alemaniara iritsi ziren. Gaua egin, nekea alde batera utzi eta uztailearen 26an 35. urtebetetzeko kontzertuan parte hartu zuen Zero Sette orkestra gonbidatu gisa.

1. Straubinger Akordeonorchester 1973 e.V.ak eta hauen haurren orkestrak izan ziren lehenak taulagainean eta errepertorio klasikoa eskaini zuten, Mozarten *La Flauta Mágica*ren *Obertura*, *Danza Polovtsiana* Borodine-na, Jacobiren *Suite Sinfónica* edo *Habanera Malagueña* Kühmstedtena.

Ostean, Zero Setteren txan da izan zen. Baina musikarekin jarritu baino lehen Elias Goikouria orkestraren zuzendariak alemaniaraz hitz batzuz esan zituen, hala nola, entzule guztiei ongietorria eman eta, aldi berean, talde lasarteoriarrarekin izan zuten harreka ona eskertu zuen.

Ohizko obrak *Danza del sable*, *Brasilía*, *Guillermo Tell* obraren *obertura*, *La Boda de*

Luis Alonso eta berriak *Danza en la Taiga*, Piazzollaren *S.V.P. (S'il Vous Plait)*, *Bagatela* Rixnerrena edo *Pozik* eta *Txori Saltaria* fandango eta arin-arin jo zituzten lasartearek bere saioan. Azken bi hauek Erketzeko David Egizabal eta Olatz Begiristain dantzarien laguntzaz.

Alemaniarrek Zero Setteren lana eskertzen jakin zuten. Izan ere, orkestraren emanaldia bukatzean entzuleek zutik jarri eta txalo zaparrada handia eskaini baitzion Lasarte-Oriako orkestrari.

Urteurrenari bukaera emateko, helduen bi orkestrek Bizeten *Carmen* eskaini zuten aretoan zeuden guztien gozamenarako.

Hala ere, aurretik Lasarte-Oriako orkestra zutitu eta alemaniaraz Straubingerreko orkestra eta honen kideak zoriondu eta *Zorionak zuri* jo zuen.

Oroigarri banaketan Zero Settek Alemaniako kide bakoitzari sagardo botil eta edalontzi bana eraman. Alemaniarrek herriari buruzko liburua eta bertako oroigarriak.

Kontzertua eta turismoa

“Gogoratzeko kontzertua izan zen. Orkestrak eskainitako hoberenetakoa”, esan digu Zatarainek eta zera atxiki du, “ez genuen espero, entsegua ez zen ona izan eta. Hala ere, askotan gertatzen den gauza da.”

“Hala ere, alemaniarrek obra klasikoetara ohituak daude eta gure errepertorioa desberdina da. Herrikoia goa dela esan daiteke, tangoa pasodobleak, etab., baina ez horregatik jotzeko errazagoa. Haien artean gure emanaldia ezustekoa izan zela uste dut”, onartu digu Zero Setteko kideak.

Igandea Straubingen turismo egiteko garaia izan zen.



Straubinger eta Zero Sette akordeoi orkestrek *Carmen* jo zuten amaieran. Argazkia: Zero Sette akordeoi orkestra



Straubingener orkestrak bere herria erakutsi zion Lasarte-Oriako taldeari. Argazkia: Zero Sette akordeoi orkestra

Eta hurrengo egunean Munichera, bertan bi egun igaro eta Friburgora egin zuten.

Baina ez zituzten hiriburu hauek soilik ikusi, bidaian zehar bisitak egin baitzituzten, hala nola, Ludwig II.a

Errege eroaren *Neuchswans-tein* gaztelua edo Rhin ibaieran urjauziak.

Taldeari gehien gustatu zitzaion lekua zein zen galde-tu eta zera esan digu Zatarainek, “Errege eroaren gaztelua

dela uste dut. Ikusgarria da benetan. Harkaitz baten gainean dago, mendiz eta basoz inguratua. Barrutik ere ikustekoa da, Wagnerren obrei buruzko margoz bete da gu eta oso ongi mantendua”.

Bavariako garagardoa

Bavaria joan eta bertako edari famatuena, garagardoa, dastatu gabe ez ziren bueltatu noski. “Garagardoa edan genuen”, onartu digu Iñigok, “kontzertu egunean ez baina gainontzean pila.”

Nahiz eta bidai nekagarria dirudien, oraingoan lasaigo ibili direla esan digu akordeoilariak, “Kontzertu bakarra izan dugu, Straubingenekoa, beste bidaietan gehiago izaten ditugu.” Eta adibide gisa datorren urtean Frantzira egingo duten bidaiak jartzen du, lau egunetan hiru kontzertu eskainiko baitituzte. Baina, bidai hauei ere alde positiboa ateratzen die Iñigok, “taldea sendotzeko baliagarriak dira bidai hauek.”

Lasarte-Oriako V. Akordeoi Jaialdia

Eta ia porrik gabe geratu da Zero Sette akordeoi orkestra. Izan ere, irailaren 27an 19:30etan, Lasarte-Oriako V. Akordeoi Jaialdia ospatuko baita Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Iñigok jakin arazi digunez, izen handiko akordeolari hungariarra eta Espainia mailan, zein atzerrian hainbat sari eskuratu dituen akordeoi orkestrak parte hartuko dute aurtengo jaialdian.

Obrei dagokionez, Zero Settek Reveriano Soutullo

eta Juan Verten *La leyenda del Beso* obra estreinaldiz joko duela eta bi orkestrek Astor Piazzolla *Violentango* eskainiko dutela aurreratu digu.

Honetaz gain, akordeoi jole sasoitsu bati omenaldi hunkigarria egingo zaiola onartu digu,

Baina Iñigok ez digu izenik eman nahi izan. Beraz, xehetasun gehiago jakiteko jaialdiaren aurkezpen egunera arte itxaron beharko dugu guztiok. •

Maialen Chourraut Piraguista

“Joko olinpikoak zirko handi bat dira”

■ Lasarte-Oriako kirolariak ez zuen bere proban suerte handirik izan ■ Gero beste kirol batzuka ikusteko aukera izan zuen ■ Pozik joango litzateke berriro lau urte barru Londresko jokoetara

Lehenengo aldiz izan da olimpiadetan, munduko kirolari onenen artean eta esperientziaren ondoren pozik aurkitu dugu Maialen Chourraut piraguista Lasarte-Orian. Bere proban izan ez zuen suertea, gero beste kirolak ikustera joan zenean izan zuela kontatu digu. “Atletismoko ehun metroko finala ikustea izan da ederrena. Ez Inaugurazioa ez beste ezer. Inaugurazioa ez genuen ezer ikusi. Estadioko gimnasioan baziren bi pantaila handi baina ez zuten zeremoniak irudirik ematen, estadiora ateratzeko ginen ordena balitz. Atera eta gero poltikariaren hitzaldiak eta sua nola pizten zuten, besterik ez genuen ikusi. Txaskoa izan zen. Atletismorako sarrearak lortu genituen, 100 metroko finala zela jakin gabe eta eman zizkigunak ere ez zuen jakingo, bestela ez zizkigun emango eta”. Hurbiletik ikusi zuen Maialen Bolten nagusitasuna.

Jon ALTUNA

Maialen Chourraut-ek urte asko daramatza piragua gainean ur bizieta txapelketan eta aurrean munduko onenekin lehiatu da. Urte osoko emaitza onak ez ditu borobildu, hala ere, Pekingo olimpiar jokoetan.

Ze inpresio ekarri duzu Pekingo Olimpiadetan?

Bost aldiz izan naiz aurrean Pekinen, eta jada kultura aldatuaren txerkerik ez dut eduki azken bisita honetan. Dena olimpiada, zirko bat zirudien; horrek harritu ninduen. Zirko modukoa da, dena oso handia, eta kaxotxen artean parte hartzaileak ginen protagonista. Sekulako muntaita da. Kontrol asko ere bazegoen Gune Olimpikora, Hotelera edo Kanalera sartzeko. Hasieran astuna egiten zen baina gero ohitu ginen.

Kirol aldetik ez duzu emaitza onik izan, azken batean urte osoko lana egun batean erabakitzen da. Hori gogorri izango da, ezta?

Hori da kanpotik ikusten dena, azken txapelketako emaitza. Olimpiada medioetan asko nabarmen zuten konpetizioa da eta ez da ikusten urteko lana. Argi dago emaitzarekin ez nintzela batera gustura geratu, zerbaiz gehiagoren bila joan nintzelako. Kirola horrela da batzuetan ez da ondo ateratzen. Baina, hala ere, oso pozik nago; aurrean progresio handia eduki dut. Egin ditudan proba guztietan, olimpiadetan izan ezik, aurreko bosten baruan geratu naiz. Hoberenekin hikamikan hasi naiz.

Ander Elozegi laugarren geratu zen. Hori pozgarria izango zuen zuentzat, ezta?

Bai. Emaitza ona da. Piragismoan ari direnentzat ona dena oso gustura hartzen dugu.

Zer moduz Pekin-en? Zenbat denbora egon zarete?

Aurrean bost aldiz egon gara Pekinen, lehen lauetan hamar egunetan entrenatzen. Oso garantzitsua da guretzat lehi-

tu behar dugun kanalean ibiltzea eta antolatzaileek horrela jarri ziguten. Urrian hamar egun egon ginen, apirillean beste hamar, ekaineko lehen hamabostaldian hamar eta ekaina bukaeran beste hamar. Guk nahiago dugu hilabete osoa egon han jarraian baina horrela jarri ziguten.

Gero olimpiada garaian zenbat denbora egon zarete?

la hilabete, 25 bat egun. Ordu-erako ikusi beharrekoa ikusia geneukan eta politena izan da, behin konpetizioa amaitu eta gero olimpiada bizitzea. Atletismoko finalak ikusten egon ginen, 100 metro eta pertika, gimnasia, igeriketa sinkronizatua,... Oso politak. Proban izan ez dudana suertea izan nuen kirolak ikusterakoan. Sarrearik gabe joan, ia sarterik izango genuen probatzen, eta 100 metroko finala bertatik ikusi genuen. Bolt eta besteak ia aurrepegi aurrean geneuzkan. Pertikako finalean, berdina, justu parean tokatu zitzaigun. Suertea. Estadiora joan ginen ez genekien non izango ginen ere.

Epailak zorrotzak izan al ziren zurekin?

Gauza arraro bat gertatu zen. Lau epaila daude ate bakoitzeko eta nirean bik esan zuten ukitu egin nuela eta beste biki esan zuten. Teorian balantza kasua da, eta horrelakoetan araua argia da: idatzita dago kirolariaren alde egin behar dela eta kasu honetan ez zuten egin. Baina ez diot garantzirik emango, ni ez nengoen atearan erdian eta hori nire errua da. 50 segundoko zigorra jaso genuen artean lehena izan nintzen. Hala ere, postu bakar batengatik, baina, kanpoan...

Kontsolazio txikia izango da hori...

Ez, ez daukat kontsolaziorik. Ez da begiritu behar soilik olimpiadetan egindakoari urte guztiko lana hor daukat, jada irabazita daukat hori. Oso lan ona izan da eta oso gustura nago. Olimpiadekin ez, baina egindako beste guztiarekin bai.

Ander Elozegi laugarren geratu zen. Hori pozgarria izango zuen zuentzat, ezta?

Bai. Emaitza ona da. Piragismoan ari direnentzat ona dena oso gustura hartzen dugu.

Zer moduz Pekin-en? Zenbat denbora egon zarete?

Aurrean bost aldiz egon gara Pekinen, lehen lauetan hamar egunetan entrenatzen. Oso garantzitsua da guretzat lehi-

“...kirolari famatuak ondotik pasatzen ziren, baina niri, kirolari eta gorputz ezberdinak ikustea gustatu zitzaidan gehien. Nola moldatzen den gorputz bakoitza bere kirolera,... Batzuen ondoan ez nintzen kirolari ere sentitzen.

“Gertutik ikusi nuen Boltek nola irabazi zuen eta munduko errekorra nola hautsi zuen. Porra bat egin genuen estadioan bertan: zein marka egingo ote zuen Boltek. Nik 9.69 esan eta erotuta nengoela zioten. Asmatu egin nuen.

batetik, bestetik,... Niri, hala ere, gehiena gustatu zitzaizana, dudarik gabe, kirolari eta gorputz ezberdinak ikustea izan zen. Nola moldatzen den gorputz bakoitza bere kirolera,... Hasierako egunetan atleta kubatar batzuk ikusi genituen gimnasioan eta erabat harrituta geratu ginen. Sekulako indarra zuten, hankatan batez ere. Beraiekin ondoan ez nintzen kirolaria ere sentitzen, baina nik gorputza slalomeroa daukat.

Euskaldun batzuek ere izan zarete Pekinen...

Bai Naroa Agirre, Asier Maeztu,...Noizbehinka ikusten ginen eta ilusioa egiten zigan.

Beste kirolen artean zerik edo zein kirolarik eragin dizu zirrara handiena?

Gertutik ikusi nuen eta gehiena Boltek. Batez ere, nola irabazi zuen eta munduko errekorra nola hautsi zuen ikustea. Porra bat egin genuen estadioan bertan, lasterketa aurretik: zein marka egingo zuen Boltek. Nik 9.69 esan nuen. Seguitan esan zidaten erotuta nengoela, hori ez zela posible, eta asmatu egin nuen.

Onak izan al dira olimpiadak? Ikusi al dituzte?

Nire proba egin arte telebistatik ikusi nituen, entrenatzen ari nintzen eta ikusten nuen txinok nola dominak irabazten zituzten. Txinan txinoena ematen zuten eta egunerok, ping pong, halterofilia, esgrima,... bost edo sei kanal ziren olimpiadetako buruzkoak baina dena zuten txinok egin zuten. Kirol batzuetan kokoteraino bukatu nuen.



Hori alde guztietan da horrela, hemen hemengoak ateratzen dira eta han hangoak.

Normala da hori, baina Txinan haienbeste kanal zeukateenez ilusioa neukan zerbaiz ikusteko. Eta beti txinoren bat irabazten ikusten nuen.

Antolaketa nolakoa izan da? Kontrol handia izan dela esan dute. Sumatu al duzue?

Kontrol handia izan da baina kaxotxen artean. Estadio olimpiadetan izan ditugu bata bestearen atzetik, piraguak sartzeko, beroketak egiteko...

“Ilusioa Londresko olimpiadetan jarrita daukat, baina pausuz pausuz noa. Lau urte asko dira, azken urteotan bi operazio izan ditut sorbaldan. Lesioak nahiko buruhauste handia dira.

“Gogoko dut Kontxako estropadan izatea. Festa bat da, baina guretzat askoz handiagoa. Ziabogara joaten gara eta bueltan ontzi guztien ondoan sortzen diren olatuak izugarri ak dira. Gozatu egiten dugu.

hotelean bertan sartzeko ere komediak izaten genituen. Egunerok pasatzen ginen eta horkoak ginela bazekiten. Lehenengo aldiz urrian joan ginenetik zailtasunak izan ditugu bata bestearen atzetik, piraguak sartzeko, beroketak egiteko...

Piragiek ba al dute jarraitzailearik? Ba al zen ikuslerik?

Bai. Piragisten gurasoak joan ziren hemendik, eta bakoitzak bere jarraitzaileak zituen.

Bloga ere badaukazu interneten. Zer moduz teknologia berrieekin?

Bloga klubekoek egin zidatelako daukat. Hiru gauza dakizkit, nola idatzi, argazkiak nola sartu,... kuxukeatuz ikasi egiten da.

Kirol mailan zer asmo dituzu orain, zein erronka etorkizunerako?

2009an munduko txapelketa Seo de Urgelen daukagu. Urte osoan hor nago entrenatzen eta beraz etxean jokatuko dugu. Beraz ondo egiten saiatu behar, aukera asko daude. Horrek ez du esan nahi aterako denik. Kirola da eta aldagarri asko daude, ur korronteak ... aldatu egiten dira beti.

Oso kirol korapilatsua da, lehiatzeko sakrifikaia. Hala ere, entrenatzeko beste kirol batzuk baino hobea da, atseginagoa. Olimpiadetan konturatu nintzen beste batzuk oso gogorak direla, ia entrenamendua errepikorrak dituzte.

Guk toki ezberdinetan entrenatzen dugu, entrenamendua mota ezberdinak egiten ditugu, teknikoki oso fin egin behar dugu, inprobisazioa asko landu behar da, fisikoki ondo egin behar da, gimnasioa, ur geldia, ur bizia, atekin, ate gabe, denetik egiten dugu. Beste kirol batzutan beti berdina egiten ari dira.

Estatuko txapelketa sarri irabazi duzu, eta olimpiadetan gertatutakoaren ondoren munduko txapelketan gogo gehiago izango duzu?

Gogoak beti berdinak. Ilusioa Londresen jarrita daukat, baina pausuz pausuz noa. Urtero dago Europako Txapelketa eta Munduko Txapelketa. Oso inportanteak dira.

Beraz lau urte barru berriro olimpiadetan izateko asmoz...

Bai, baina lau urte asko dira, azken ziklo olimpiiko honetan bi operazio izan ditut sorbaldan eta lesioak nahiko buruhauste handia dira. Nahiago dut lasai joan daukadani aurre eginez.

Noiztik ari zara honetan?

Ikastaro batzuekin hasi nintzen Atletico S5en eta duela hamahiru urte 12 urterekin sartu nintzen taldean. Zer zen eta zer egin behar zen jakin gabe.

Eta noiz ari jarraitzeko asmoa daukazu?

Gogoeta eta ilusioa dudan eta gorputzak uzten didan bitartean segituko dut.

Donostian hasi zinen eta orain urtea Katalunian pasatzen duzu.

Urte guztian ez baina askotan naiz han. Atletico SS klubean ez daukagu entrenatzeko tokirik eta beraz atera egin behar gara. Aurrean Seo de Urgelen asmoa egon: urriaren Pekinen, azaroko Italian, urtarrilean Australian, otsaila-martxoan artean Atenasen, apirillean beriz Pekinen, maiatzean Polonia eta Eslobakian, ekainean bi aldiz Pekinen, munduko txapelketa Brasilen, Olimpiada Pekinen... joan, etorri, erreperatu, ordutegira ohitu,... Gelditu gabe gabilta. Aurrean pozik nago lasaia izango delako.

Beraz etxean egoteko gogoak al daukazu?

Edo Seo-n egotekoa, han etxean bezala sentitzen naiz. Asko nekaten gara, gero etorri eta defentsak baxu, katarroak edo beste edozer hartzeko ariskuri gogorak... kontu askorekin ibili behar dugu.

Aste bereziak dira hauek arrunlarientzat, arrun denboraldia jarraitzen al duzu?

Gustatzen zait Kontxako estropadan izatea. Festa bat da, baina guretzat piraguistentzat askoz handiagoa da. Ziabogara joaten gara eta traineru denak paza eta gero, txalupa guztiak etortzen hasten direnean sortzen diren olatuak izugarriak dira. Olatu batean Kontxaraino joan zaitzake surftearen. Gozatu egiten dugu.

Itsasontzi handi handi bat edo bestek bi aldetatik izugarriko olatua egiten du. Bestela ere disfrutatzen dugu festa, lagunek ontzietatik pintxoak pasatzen dizkigute...

Faboritorik ba al duzu?

Ez, ez dudalako jarraitzen.. Traineruak ikusi izan ditut egun hauean, baina ez dakit nola dabilzan.



XXVI. Areto-Futbol Txapelketan izena emateko epea zabalik dago

TXINTXARRI

Ostadar Kirol Fundazioak Areto-Futboleko XXVI. Txapelketari ekingo dio aurki. Hau dela eta izena emateko epea zabaldu du, beraz txapelketa herrikoi honetan parte hartu nahi duzuenok Ostadarreko bulego berrian, Geltoki kalean 25. zenbakian, eman behar duzue izena hilak 19 baino lehen, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 20:00etara. Gehienez 30 talde onartuko dira.

Antolakuntzak jakinarazi digunez, iazko fitxak aurtengo denboraldian erabili daitezke. Baina, Ostadarreko bulegoan utzi behar dira aurtengo zigilua jartzeko. Fitxa berria egin behar duten jokalariek beriz, EHNA edo NANaren fotokopia eta bi argazki utzi behar dituzte bulegoan.

Txus Alonso azken urteetako txapelketako arduradunak atsedendaldi bat hartuko du eta bere ordezkari Imanol Azkuek eta Eneko Molinak gidatuko dute aurtengo txapelketa. Ostadarreko ordezkariak eskerrak eman nahi dizkiote Txuseri, urte hauetan txapelketaren alde egin duen lanarengatik. "Ez da erraza txapelketa herrikoi hau antolatzea, esfortzu eta lan handia eskatzen baitu: astero taldeekin bilerak, aste-buruko partidak antolatu, web orria eguneratu..."

Ziur gaude Imanol eta Enekok txapelketa ongi eramaten jakingo dutela, orain arte Txuseri laguntzen aritu baitira. Hala eta guztiz ere, urtero bezala, txapelketan parte hartu behar duten taldeei gauzak erraztu ditzatela eta partiduetan kiroltasunez aritu daitezela eskatzen diegu".



Areto-futboleko XXVI. txapelketan parte hartzeko izen ematea Ostadarren bulego berrian egingo da arratsalde tan.



Ostadarrek Tourreko Porrako sariak banatu zituen

Ostadar K.F.k uztailaren 30ean banatu zituen Tourreko sariak Ilargi tabernan. Hau izan baitzen puntu gehien lortu zituen taberna. Porrako txartel irabazleak, Alex Rojok (797 puntu) 360 euro eskuratu zituen eta Joxema Aranzabek (783 puntu) bigarren saria irabazi zuen, 180 euro. Ilar-

gik, taberna irabazlea izateagatik, Urgull jatetxean bi pertsonentzako afaria irabazi zuen. Ostadarrek parte hartzaile guztien artean 8 urdaiazpiko banatu zituen. Hiru porretako txartel hoberean zein izango den jakitea falta da. Irabazleak 1600 euro jasoko ditu.

LOKEko gimnastek denboraldi berriari ekingo diote larunbatean

Lasarte-Oria Kirol Elkarteak gimnasia atalak irailaren 13an, larunbatean, ekingo dizkio 08-09 denboraldiko entrenamenduei udal kiroldegian. Amaia Calvo eta Maite Rueda entrenatzaileek gimnasia erritmikoaren sekretuak erakutsiko dizkiete bertara gerturatzen diren kirolariei.

Urtero bezala astean hiru entrenamendu egingo dituzte eta ordutegia ondorengoa da: asteazkenetan 18:30etatik 19:30etara, ostiralean 19:00etatik 20:00etara eta larunbatean 12:00etatik 13:30etara.

Beraz, gimnasia erritmikoa egin nahi duten sei urtetik gorako haurrek aipatu ordue-tan udal kiroldegitik pasa edo 676872029 telefono zenbakira deitu behar dute.



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

NOELIA CRUJEIRAS margolaria-
ren margoak erakusgai.
Jalgi kafe-antzokian, egun
osoan.

Asteazkena, 10

Hitzaldia

Rafael Ramos psikologoak
*Tratu txarrak pertsona edade-
tuetan* gaia jorratuko du Sanita-
teko, Kontsumoko, Merka-
taritzako eta Ingurumeneko
departamentuak antolatatu duen
hitzaldian. Sarrera doan.
Manuel Lekuona kulture-
txean, 18:30etan GAZTELANIAZ

Osteguna, 11

Hitzaldia

Sanitateko, Kontsumoko, Mer-
kataritzako eta Ingurumeneko
departamentuak antolatuta,
Xabier Arrazola psikologo kli-
nikoak autoestimulari buruz
hitz egingo du hitzaldi areto-
an. Manuel Lekuona kulture-
txean, 19:00etan, GAZTELANIAZ



Noelia Crujeiras Nuñez

Iraileko hilabetearen zehar Jalgi kafe-antzokian Noelia mar-
golari honen oleoak egongo dira ikusgai. Kolorez betetako
lanak ikusi ahal izango dira eta nahi izanez gero bertan
dauden artelanak erosi daitezke. Noeliak ere, gustuko-
duzun argazkia lientzoan inprimatzen du. Margolariarekin
harremanetan jartzeko, 616.794.673 telefonora deitu
behar duzue.

HILABETE OSOAN ZEHAR, JALGIN

Ostirala, 12

Bakarrizketa

Manuel Simancas artistak
hainbat bakarrizketa umoretsu
eskainiko ditu Naiban taberna-
ko saioan.
Naiban tabernan, 23:00an.
GAZTELANIAZ

Larunbata 13

Kontzertua

AURKA TALDEA. Herriko Punk-
rock talde honek Jalgi kafe-
antzokian kontzertua
eskainiko du. 22:30etan.
EUSKARAZ



Osteguna, 18

Hitzaldia

Helena San Pedro psikologoak
*Garapen psikoafektiboa: Hau-
rren emozioa eta pentsamen-
dua* hitzaldia eskainiko du Oti-
k 7ra urteko umeen gurasoei
zuzendua. Manuel Lekuona
kulturetxean, 18:00etan.
GAZTELANIAZ

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara
Irailak 27tik aurrera larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Manuel Lekuona kulturetxea

Oharrak

Zaharren omenaldiko bazkaria

Gizarte zerbitzuak jakin arazi du urriaren 5ean izango dela zaharren omenaldiko bazkaria. Txartelak jasotzeko Villa Miarentxura gerturatu ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara. Epea irailaren 12a arte dago irekia. Bazkarian parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira: 1942an edo lehenago jaio izana eta Lasarte-Oria erroldatua egotea dira.

Horregatik gonbita esku-
ratzeko beharrezkoa izango da nortasun agiria aurkeztea. Era berean, nahiz eta 1942an edo lehenago jaiotakoak ez izan, aipatutako baldintzak betetzen dituzten senar-emazteek izena eman ahal dute.

Margo eta marrazki ikastaroak

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarrekin gaztetxo eta hel-

duentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaro-
tako izen-emateko epea zabaldu du. Beraz, interesa duzenok irailaren 8, 9 eta 10ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12. zenbakian behean duten egoitzan.

Usurbilgo Lanbide Eskola

Irailaren 29an Usurbilgo Lan-
bide Eskolan teoria zein enpresa praktikaz osaturiko OFFICE ikastaro bat hasiko da. Txekinbide antolatuta eta ikastaroa ondoren aipa-
tzen diren giza taldeei zuzen-
duta dago: bere lehenengo enplegua izan ez duten 35 urte bitarteko pertsonak, 12 hilabete baino gehiago lanik egin gabe daramaten 40 urte-
tik gorako pertsonak eta lan egin nahi duten emakumez-
koak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943-364600 telefono zenbakira deitu behar duzue bulego ordutetan.

Alboka abesbatza

Gaur Alboka abesbatzak ikas-
turteari hasiera emango dio eta 6 eta 65 urte arteko herri-
tarrak animatu nahi ditu par-
te-hartzera. Helduen entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Alboka txiki haurren abesbatza, berriz, hilaren 11an 19:00etan du lehenengo entsegua eta ostegunero ordu-
beteko saioa izango da.

Odola ateratzeko

Udarako oporren ondoren hilabete honetan bestetan bezala odol ateratzeko hilabe-
teko azken astelehenean, irailaren 29an egingo dira Osasun Zentroan, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola orde-
kazezina da eta!

Oriako Karmengo Kapera

Abuztuko opor aldi garaia pasa ondoren, irailan berrito

hasi dira mezak aurreko ordu-
tegi berdinarekin. Beraz hemendik aurrera mezak igandero goizeko 11:30ean izango dira.

Erketz Dantza Eskola

Ezketz Dantza Eskolak jakina-
razten du zabalik dela dantza eskolan izena emateko epea. Interesatuak pasa daitezke, hilaren 8tik 11era, astelehenetik ostegunera, biak barne, eta 18:00etatik 20:00etara Zumaburuko eskolatan. Izena eman dezakete 2003. urtean eta ondorengoetan jaiotako haurrek.

Ostadar Futbol Eskola

Ostadarreko Futbol Eskolan uda baino lehen izena eman zutenek, irailak 12 baino lehen bulegotik pasa behar dute izen-emate orria uzteko. Ostadarrekoek jakinarazi nahi dute bulegoa lekuz aldatu dutela, ekaina geroztik. Aurreantzean Geltoki kalea 25. zenbakian dago eta hil hone-

tan 19:00etatik 20:00etara aurkituko duzue irekita.

Udal Kiroldegiko ordutegia

Udal kiroldegian neguko ordutegiarekin hasi dira: astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeetan 9:00etatik 13:00etra. Igerilekuko ordutegia, berriz, astelehenetik ostiralera 7:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta igandeetan 9:00etatik 13:00ak arte. Michelingo kirol gunea astean zehar 15:00etatik 22:00ak arte, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeetan 9:00etatik 13:00ak bitartean.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Aurten 381.000 euro bideratuko dira kooperazio-laguntza egitasmoetarako

HELENA FERRERAS

Lasarte-Oriako Udalak, garapen bidean dauden herrialdeetara bideratuko diren diru laguntzak onartu zituen zuzenaren bukaeran. Aurten, 381.000 euro bideratuko dira Boliviara, Ekuatore Gineara, Somotora eta Saharara. Lasarte-Oriako Alkateordea den Iñaki Mujikarekin hitz egin dugu, herrialde bakoitzean gauzatuko den proiektuen berri zehatz mehatz jakiteko.

Prosalus, gobernuz kanpoko erakundearekin lan egin du azken urte hauetan udalak **Boliviari** eta **Perun** eta aurten errekurtsoak eskatu dizkiete Prosalusetik elikagai-segurtasunaren inguruan lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeak bildu eta topaketa bat antolatu ahal izateko. Horrela elkarlana sustatu eta informazioa trukatzeko aukera izango dute gero lana egiterako orduan bestean esperientzia kontuan edukita erazago egin ahal izateko.

Beste proiektu bat **Ekuatore Ginean** izango da, Akiba elkarteak etxebizitzak eraikitzen ari da. "Han eraikuntza eta porlana oso garestiak dira eta zaila dute bertakoek etxe bat altxatzea. Horretaz gain, barrutik ere hornituko dute etxea familia bat bizi dadin eta horretarako Udalarri 240 eguzki-lanpara erosteko laguntza eskatu diote. Lanpara horiek energia biltzen dute horrela gauzez ere argia edukiko dute etxe barruan", azaltzen du Iñaki Mujikak.

Saharan, garraio azpiegiturarako laguntza gain Oporrak Bakean egitasmoa gauzatzen da urtero. Urnieta eta Andoainekin batera egiten da.

Somotoko egitasmoak

Beste alde batetik, Somoton, Nikaraguan, eguzki-plakak jarriko dira 45 etxebizitzak hornitzeko modukoak, baina horretaz gain zaintze eta mantentze lanak egiten erakutsiko zaie bertakoei plakak denbora luzez baliagarriak izan daitezkeen.

"Etxebizitzak eta espaloiak ere eraikiko dira eta kasu berezietan salbu, etxeak, familiak arduratzen diren emakumeentzat izango dira, hau da, beraien izenean jarriko dira horrela familia egitura mantendu dadin", dio alkateordeak, "Orain arte 3000 etxebizitzak eraiki dituzte eta aurten beste 50 bat egitea espero dute. Orain dauzkaten komunak ere ordezkatu dituzte, daudenak infekzio fokurik arriskutsuak direlako eta eraikuntza lanetan onuradunek parte hartuko dute".

Mugikak kontatu digunez, Somoton Kultur etxe bat egin zuten lehen merkaturatutako zegoen eraikinean eta orain lan osagarriak egin behar dira bertan, adibidez zine areto bat. Kultur etxean bertan ikastaroak egingo dira kitarra eta marimba bezalako instrumentuak jotzen ikasi edo dekorazioa, pintura eta zorientzeko tarjetak egiten erakutsiko zaie. Horrelako gauzak ikastea baliagarria izan daiteke gero lan egiteko.



Somoton espaloiak eraikiko dira eta eguzki plakak jarri 45 etxebizitzak argi indarrez hornitzeko.

Somoton dagoen bulegoa juridikoki legala izan dadin kudeaketa lanetan dabilta horregatik momentuz bidaltzen den diruaren erdia bidali da gertatzen denaren zai.

Euskal Fondoak

Maiatzean Euskal Fondoko proiektuetan parte hartzeko aurrekontua onartu zen. "Bertan udaletxe desberdinek parte hartzen dute", azaltzen du Mugikak, "egitasmo desberdinen poltsa bat dago eta udaletxe bakoitzak erabakitzen du zeinetan parte hartu".

Euskal Fondorako aurten eman dena bi proiektuetarako izan da, bata Somotoko antolaketa eta saneamendu lanak egiteko laguntza izan da. Proiektu hau 303.000 eurokoa da eta udalak 42.000 jarri

ditu. "Bi auzotara bideratuta dago proiektu hau eta gutxiak herria urbanizatzen ari da, alde batetik ibilgailuak erraztasun handiagoarekin igaro daitezkeen eta bestetik oinezkoentzat espaloiak egiten dira hauek ere erosoago ibili ahal izateko. Gainera osasunerako hobe da halako egoera bat, hau da, lurra trinko eta garbiagoa mantentzen da, bestela hauts asko sortzen da eta hori arnastea ez da batere ona. Esan bezala, gainera, etxebizitzak trinkotu egiten dira eta adibidez hurakanen aurrean

eraberritutako auzoetan dauden etxeek gehiago irauten dute", dio Mujikak.

Beste alde batetik Saharako garraioen azpiegituran parte hartzen dute Euskal Fondotik eta proiektu hortarako ere bideratu da diruaren zati bat, 188.000 euro eta udalak 8.000 jarri ditu. "Batetik, garbikamioi bat bidali nahi da, ibilgailuak tratatuta gelditzen direnean atara ahal izateko. Beste ibilgailu arin bat ere erosi nahi da kanpamenduen arteko joan etorriak errazteko eta bi trailer hara eramateko".

UDAL

WANTED

- 16 urtetik gorakoentzat
- Gizona edo emakumea
- Bertakoa edo kanpoko
- Ikaslea, langilea, langabea edo jubilatua
- Eta... euskara ikasteko gogoia, borondatea edo behararekin

UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.com

EUSKALTEGIA

2008-2009ko EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak:
euskalduntzen alfabetatzen, sakontzeko ikastaroak eta EGA.

Autoikaskuntza (mintzamen taldean)

Ikasturtearen iraupena:
2008ko irailaren 22tik
2009ko ekainaren 19ra.

Hizkuntz eskakizunak eta HABEren 1., 2. eta 3. mailak (EGA)

Ikastaro bereziak:
beharren eta mailen arabera.

Astelehenetik ostegunera + tutoretza + hizkuntza ohiturak aldatzeko plangintza

Matrikulaldia: irailaren 1etik 19ra.

**Ganbo kalea 1° Lasarte-Oria • Tel. / Faxe : 943 361621 • euskaltegia@lasarte-oria.org
www.lasarte-oria.org/euskaltegi**